

Petronorren erabakigunea Madrilerera eramatea kezkarritzat jo du ELAk

Euskal birfindegiaren etorkizuna aztertu zuten sindikatuak eta Repsol konpainiak


ELA sindikatuko ordezkariak Petronorren akziodun nagusia den Repsol konpainiako zuzendaritzarekin bildu ziren, euskal birfindegiaren etorkizuna aztertzeko. Petronor birfindegi izatetik produkzio unitate soila izatera pasako ote den beldur da sindikatua.

V.P. / BILBO

Sindikatuaren iritziz, 800 langilez osatutako plantila daukan euskal birfindegiaren zentzuzko aldatzea prestatzen ari dira, eta horien arabera, Euskal Herrian puntako konpainia izatetik Madrilen erabakien menpe egongo litzatekeen produkzio unitate izatera pasa daiteke, enpresa deuseztaraziz. Petronorrek aurten 14.000 milioi pezetako (778 milioi libera) irabaziak espero ditu.

ELA eta Petronorren % 89ren jabe den Repsoleko Giza Errekurtso zuzendari nagusia den Jesus Fernandez de la Vega joan zen astean bildu ziren. Bertan, sindikatuko ordezkariak Repsol taldeak sortu nahi duen Merkatal Gestio Unitateari (MGU) buruzko iritzia agertu zuten, datorren hitzarmen kolektibo eta enpresaren inbertsioei buruzko kezka gain.

«BESTE ACENOR BAT NAHI EZ» MGU eratzek «erabaki zentrua Bilbotik Madrilerera pasatzea» ekarriko luke ELAren esanetan. Zentzu honetan, sindikatuak



Petronorrek 800 langile ditu eta puntako konpainia da Euskal Herrian.

MGU-Petronor berezia sortzea proposatzen du, Bilbon kokatuko zena eta Repsol taldearekin koordinazioan egongo litzatekeena.

ELA erabaki zentruak Euskal Herrikan kanpo eramatearen aurka azaldu zen. Horretarako, behar izanez gero bertako erakundeei laguntza es-

katzeko prest agertu zen. «Gure kezka agertzeko garaiz gaude, ez dugu beste Acenor bat nahi» adierazi zuten sindikatuko iturriek.

Negoiazio kolektiboari dago-kionez, sindikatuak bere kezka agertu zituen bileran. Negoiazioa Repsol taldearen barruan eginez ge-

ro, Petronorrek orain arte izan duen hitzarmen propioa edukitzeko aukera arriskuan egongo litzatekeela adierazi zioten Fernandez de la Vegari ELAko ordezkariak. Sindikatuarentzat, Petronorrek bere autonomia galtzen ari dela frogatzen du baita ere inbertsioen atzerapenak.

Donibane Ziburuko portua 1993 baino lehen berrituko da

M.ESTEBAN / ZIBURU

Joan zen asteartean Ziburun, Donibane Lohizune eta Ziburuko portuko ordezkariak eraikitza lanak ikeru zituen datorren urterako. Lanak garrantzitsuak izango dira kaiak birmoldatzeko, arrain saltoki berri bat egiteko, maioristen zentrua berrantolatzeke eta arrantza tresneriaren tokiak eraikitzeke. Xede horiek, arrantza ordezkari eta Baionako Merkatal eta Industrien eskuetan daude.

«Badakigu datozen bost urteak gogorak izango direla Donibane eta Ziburuko arrantzaentzat, batez ere Europako legeengatik» adierazi dio EGUNKARIARI Didier Mundutegik, portuko ordezkaria Merkatal Ganbararentzat.

ARRAINA DESKARGATZEKO TOKIAK «Hala ere uste dugu inbertsioa egiteko momentua dela orain —gehitu du Mundutegik—, alde batetik ekonomia egoera zaila izan arren arrantza-leke tresna berri on bat ukanen bait dute kompetentzia hobetzeko eta, bestalde, Europako dirulaguntza lor-

tzeko momentua orain da»

Baionako Merkatal Ganbarak Donibane Ziburuko portua kudeatzen du departamentuko Kontseilu Nagusiaren ordezkari. Arrantza kofradiak, maioristak eta Merkatal Ganbarak xedea onartu zuten asteartean.

Xedearan arabera, itsasuntzi gelditzeko tokiak birmoldatuak izango dira, pontoiekin. Berrehun eta gehiago metroko pontoiak izango dira 80 itsasuntzientzat. Orain, pontoirik ez dago eta berrantolaketa honen bidez Ziburuko kaia libratuko da arraina deskargatzeko. Arrain saltoki berri bat ere izango da eta barnean, maioristek arraina erosiko dute informetika erabiliz. Bestalde, portuaren eremutik kanpo, maioristen zentru bat eraikiko da eta untzien tresneriaren tokiak izango dira Ziburun.

Orokorki 31,2 milioi libera (561 milioi pezeta) inbertituko da eta azpimarra daiteke inbertsioaren kasik % 25 Europako Komunitatetik etorriko dela. Eraikitza lanak datorren udan hasiko dira pontoiekin eta saltokiarentzat. Maioristen zentrua eta tresneriaren tokiak beranduago bultzatuko dituzte.



Donibane Lohizuneko portua.

MIXEL

Nafarroako langileen «etorkizun beltza» iragarri du LABek

IRUÑA

«Gure herrialdeak eta herrialdearentzako erabaki ahalmena izateko behar ditugun kompetentziak exigitzeko nafar agintariak borondate faltagatik», etorkizun beltza iragarri die LABek Nafarroako langileei.

Adierazpenok, sindikatuko ordezkariak Angel Luis Rodriguez, Iruñeko Gobernuko Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan sailburuarekin izandako bileraren ondoren azaldu zuen LABek.

LABen iritziz, UPNkoek PSN-PSOEek pasa den legealdian eraman zuen lan politika «ezin txarragoarekin» segiko dute, «hainbeste nafar langile kalean utzi dituen patronala baldintzarik gabe apoiatuz». Nafarroako LABentzat aurri-kosten diren krisi espediente guztien aurrean sailburuak berak datorren urterako lan-gabe kopuruak gora egingo duela iragartzea «oso esanguratsua da».

SAILAK ZEHAZTASUNIK EZ Era berean, berri-ndus-

trializazioa bultzatzeko neurriak erabakitzerako orduan Lan Sailaren «zehaztasun falta» salatu zuen sindikatuak.

Ildo horretatik, Nafarroan krisian diren sektoreen gain-behera —kontserbak, siderometalurgia, papergintza— geratzeko eta langilegoaren % 33ri eragiten dion lan egoera eskasarekin bukatzeko biderik ez du ikusten LABek.

Bileratik ateratako ondorio positibo gisa, LABek sailburuaren «elkarrizketarako jarrera irekia» azpimarratu zuen. Jarreraren erakusgarri, «LABek Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeko daukan legitimitatea» onartzen duela Rodriguezek azaldu zuten sindikatuko iturriek. Partaidetza «enpresari, UGT eta CCOOen aldetik kontrako jarrerarik ez balego» gauzatu daitekeela gaineratu zuten LABetik.

KARMELO IKASTOLAK ADMINISTRARIA BEHAR DU:

Baldintzak:
1.- Euskaldun Alfabetatua Izatea.
2.- Lanpostuarekiko Titulazioa edo Gaitasuna

INTERESATUOK BIDAL EZA-ZUE CURRICULUMA ZUZEN-BIDE HONETARA:

M.Menendez Pelayo, 12, 14
48006 BILBO (BIZKAIA)



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Lehiaketaren helburua: Tolosako ipar adarrean gas sarea instalatzeko obra osagarrien egitea (1. fasea).

Lizitazio mota: 56.171.693 pta.

Bukatze epea: Lau hilabete.

Behin behineko bermea: 561.716 pta. **Behin betiko fidantza:** 2.808.580 pta.

Proposamenak aurkezteko epea: Udai Bulegoetan aurkeztuko dira goizeko 10etatik 1era, urtarrilaren 8a arte (bera barne).

Informazioa: Gehiago lortzeko, Udaletxeko Obrak eta Zerbitzuetako Sailean edo telefono honetan: (943) 65.44.66.

Baldintza Pleguak eta proiektua ezagutzeko "Copitec" dendara zuzendu (Emeterio Arrese kalean) edo eta telefono honetara dei egin: (943) 65.40.28

Tolosa, 1991ko abenduaren 5ean. ALKATEA